

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Europako proiektu berri bat sustatuko du nitratoen ondoriozko uren kutsadura saihesteko

Proiektuaren bidez nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueraren inguruko ezagutza hobetuko da ur kontinentaletan

Jueves, 13 de octubre de 2011

Nafarroako Gobernuak Europako proiektu berri bat bultzatuko du Nekazaritzako jarduerak ur kontinentalen nitratozko kutsaduran dituzten ondorioei buruzkoa. Proiektua Europar Batasuneko "Life" deialdiaren barruan dago. Proiektuaren helburu nagusia nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak ur kontinentalak (lurpeko urak eta azalekoak) nitratoz kutsatzeko duten eragina hobeto ezagutzea da, eta, ondoren, horiek saihestu eta eragina murrizteko jardun onak eta bitartekoak sustatzea.

Helburu hori bat dator [ura nekazaritzako nitratoek eragindako kutsaduratik babesteko otsailaren 16ko 261/1996 Errege Dekretuarekin](#). Horrek [Nitratoen 91/676/EEC Europako Direktiba](#) estatuko legedira egokitzen du.

Ekimena Gestión Ambiental de Navarra sozietate publikoaren, Nekazaritzako Elikagaien Teknologien eta Azpiegituren Nafarroako Institutuaren eta Ingurumen Balabideen Zentroaren (CRANA) bidez garatu da. 2.420.765 euroren aurrekontua du, eta horren % 47,39 EB finantzatzen du.

Proiektua abiatzeko jardunaldia

Gaur goizean, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuko ekitaldien aretoan [proiektua abiatzeko jardunaldia](#) egin dute. Bertan, proiektuaren eta nitratoen arazoarekin loturiko instituzio eta erakundearen sarearen zuzendaritza batzordeak eratu dira.

Jardunaldiaren buru izan da Andrés Eciolaza Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusia, eta proiektuaren aurkezpena Juan José Grau Uraren Zerbitzuko zuzendariak egin du, erakunde partaideetako teknikariek elkarlanean.

Proiektu horren bidez, nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueren ondorioak, baita ongarrri organiko eta ez-organikoen erabilera ere, hainbat arlotan aztertuko dira esperientzia piloto gisa. Azterketa horiek oinarri, proiektuak nitratoen kutsadura simulatu eta zenbatzeko ereduak garatuko ditu. Ekintza horrek ekintza planak baloratzeko ondorioak atera eta, hala, horien efikazia eta eraginkortasuna hobetzeko aukera emango du.

Zehazki, hauek dira sakon aztertuko diren jarduerak eta lurraldeko guneak:

- Neurrien eta jardueren programen ebaluazioa egitea Ebroren akuifero alubialean eta ibaiadar nagusietan, lurpeko emariaren eta nitratoen garraioaren simulazio ereduak garatuz.

- Nafarroako nekazaritzako arro esperimentalen sareko bi arro pilototan nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueren azterketa egitea.

Proiektu horren bidez, nekazaritzako eta abeltzaintzako iturrietako nitratoen kutsadurak kalteturiko guneen artean gaiaren inguruko ezagutza jakinaraziko da. Gainera, prestakuntzarako, informatzeko, sentsibilizatzeko eta emaitzak hedatzeko ekintzak ere aurreikusi dira. Horretarako, eragile nagusiekin lan egingo da: nekazari eta abeltzaineki.